


Euskal AEko industria-prezioek % 0,6 egin dute behera 2023ko apirilean, aurreko hilabetearen aldean

2022ko apirilarekin alderatuta, industria-prezioek % 1,9ko jaitsiera izan dute

Euskal AEko industria-prezioek % 0,6 egin dute behera 2023ko apirilean, aurreko hilaren aldean, Eustatek dituen datuen arabera. Apirilako urte arteko tasa –azken hamabi hiletako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du– negatiboa izan da, urtean lehen aldiz, eta –% 1,9koa izan da.

Analisi zehatzago batek erakusten du 2023ko apirilean prezioetan aurreko hilaren aldean jaitsiera nabarmenenak izan dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Materialaren eta ekipo elektronikoaren fabrikazioa* (% 3,6), *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 3,5eko murrizketa prezioetan) eta *Erauzketa-industriak* (% 1,4). Prezioetan hilen arteko igoera nabarmenenak izan dituzten sektoreak, berriz, honako hauek izan dira: *Ehungintza, larrugintza eta oinetakoak* (% 6,8), *Ura* (% 1,7), *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 0,5) eta *Industria kimikoa* (% 0,4).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Helburu ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenari jarraikiz, 2023ko martxoaren aldean, *Energiak* behera egin du prezioetan (% 1,7), eta *Kontsumo-ondasunek*, % 0,7. Azken horien kasuan, jaitsiera *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioen % 7,3ko jaitsieraren eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* % 0,3ko igoeraren ondorioz izan da. Bestalde, *Tarteko ondasunen* prezioak % 0,4 jaitsi dira, eta *Ekipo-ondasunenak* berdin mantendu dira.

Urte arteko terminoetan, 2023ko apirilean, 2022ko apirilaren aldean, prezioen hazkuntza handienak honako adar hauetan izan dira: *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 14,0), *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez-metalezko batzuk* (% 13,9), *Zuraren, paperaren eta arte grafikoaren industria* (% 13,6), *Erauzketa-industriak* (% 12,6) eta *Ura* (% 8,7). Prezioek, urte arteko tartean, berriz, behera egin dute *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* adarrean (% 20,0), *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* adarrean (% 17,3) eta *Materialaren eta ekipo elektronikoaren fabrikazioa* (% 1,4).

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Apirila 2023

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	130,7	-0,6	-1,9
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	125,3	-1,4	12,6
Manufaktura-industria	130,0	-0,8	1,9
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	133,3	0,0	14,0
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	111,8	6,8	7,8
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	149,4	-0,9	13,6
Kokeak eta petrolioaren fintzen	139,5	-3,5	-17,3
Industria kimikoa	152,1	0,4	3,1
Botiken fabrikazioa	127,3	-1,0	2,3
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	122,4	0,1	13,9
Metalurgia eta produktu metalikoak	139,9	-0,7	0,6
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	121,9	-0,3	1,3
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	111,1	-3,6	-1,4
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	114,8	-0,1	5,5
Garraioko materialen fabrikazioa	113,2	0,5	7,6
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	120,0	0,2	6,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	134,8	0,2	-20,0
Ura	132,3	1,7	8,7
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	129,0	-0,7	11,2
Kontsumoondasun iraunkorrak	106,4	-7,3	-3,4
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	132,8	0,3	13,5
Ekipo-ondasunak	118,4	0,0	4,5
Bitarteko ondasunak	135,8	-0,4	5,3
Energia	139,7	-1,7	-19,2

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Maiatzaren 24a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da helmuga ekonomikoaren arabera ondasun-talde handi guztietan, *Energian* izan ezik, % 19,2ko jaitsiera izan baita. *Kontsumo-ondasunen* prezioek % 11,2 egin dute gora, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* % 13,5eko igoeraren eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* % 3,4ko jaitsieraren ondorioz. *Tarteko ondasunen* prezioek % 5,3 egin dute gora; *Ekipo-ondasunen* kasuan igoera % 4,5ekoa izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, hil honetako indizea laginaren % **95,47ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62